

**EBAZPENA, HEZKUNTZA SAILEKO
LANGILERIAREN KUDEAKETAKO
ZUZENDARIARENA, 2025/2026
IKASTURTERAKO PARTZIALKI
ORDAINDUTAKO BAIMENAREN (URTE
SABATIKOA) DEIALDIA EBAZTEN DUENA****RESOLUCIÓN DEL DIRECTOR DE
GESTIÓN DE PERSONAL DEL
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN POR
LA QUE SE RESUELVE LA
CONVOCATORIA DE PERMISO
PARCIALMENTE RETRIBUIDO (AÑO
SABÁTICO) PARA EL CURSO 2025/2026**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen hitzarmen kolektiboaren 56. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioari helduz — akordio horrek, era berean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2004ko urtarrilaren 7ko Aginduari lotzen dio —, ordainsari partzialeko baimenaren modalitatea ezartzen da, eta irakaskuntzako eta hezkuntzako lan-kontratuko langileei aplikatu dakieke.

En virtud de lo dispuesto en el artículo 56 del Convenio Colectivo del Personal Laboral Docente y Educativo del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, y en remisión al Acuerdo Regulador de las Condiciones de Trabajo del Personal Funcionario Docente no Universitario —el cual, a su vez, remite a la Orden de 7 de enero de 2004 de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación—, se establece la modalidad de permiso con retribución parcial aplicable al personal laboral docente y educativo.

Agindu horren 5. artikulua arabera, honako hauek dira urte sabatikoa emateko baldintzak:

Conforme al artículo 5 de la citada orden, los requisitos para la concesión del año sabático son:

- *Karrerako funtzionarioa izatea edo Hezkuntza Departamentuarekin lan-harreman egonkor iraunkorra izatea.*
- *Zerbitzu aktiboan egotea.*
- *Falta astunagatik edo oso astunagatik diziiplina-espediente baten izapideetan sartuta ez egotea, edo hori dela-eta zehapena betetzen ari izatea.*
- *Ezintasun-espediente baten izapideetan sartuta ez egotea.*
- *Gutxienez 5 urtera egotea nahitazko erretiroa hartzeko.*

- *Ser funcionario/a de carrera o mantener una relación laboral estable permanente con el Departamento de Educación.*
- *Encontrarse en situación de servicio activo.*
- *No estar incurso/a en la tramitación de un expediente disciplinario por falta grave o muy grave, o cumpliendo sanción por motivo del mismo.*
- *No estar incurso/a en la tramitación de un expediente de incapacidad.*
- *Estar al menos a 5 años para acogerse a la jubilación forzosa.*

Agindu horren seigarren artikuluan honako hau xedatzen da: “Egindako eskaera ikusita, eta 5. artikuluan ezarritako baldintzak betetzea eragozten duen inolako gorabeherarik ez dagoela egiaztatu ondoren, Langileriaren Kudeaketako zuzendariak, 5 hilabeteko epean, eskatutako baimena emateko edo ukatzeko ebazpena eman eta jakinaraziko du.”

En el artículo seis de esa orden se determina que: “A la vista de la solicitud formulada, y una vez comprobado que no concurre ninguna circunstancia que impida el cumplimiento de los requisitos fijados en el artículo 5, en el plazo de 3 meses el Director/a de Gestión de Personal dictará y notificará la resolución por la que se conceda o deniegue el permiso solicitado.”





Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, honako hau

Considerando lo dispuesto en el artículo 10 del Decreto 71/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación;

EBATZI DUT

RESUELVO

Lehenengoa.— Ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren pertsonen partzialki ordaindutako baimena ematea. Baimen hori 2025/2026 ikasturtean hasiko da.

Primero.— Conceder a las personas que figuran en el anexo I de la presente resolución, un permiso parcialmente retribuido cuyo comienzo es en el curso 2025/2026.

Bigarrena.— Partzialki ordaindutako baimenak ondoz ondoko 5 urteko aldia hartzen du; beraz, denbora-luzapena 2025eko irailaren 1etik 2030ko abuztuaren 31ra artekoa izango da.

Segundo.— El permiso parcialmente retribuido abarca un período de 5 años consecutivos por lo que la extensión temporal será desde el 1 de septiembre de 2025 hasta el 31 de agosto de 2030.

Inola ere ezin izango da 5 urteko denbora-tarte hori gainditu. Salbuespen gisa, interesdunaren gaixotasun larriaren kasuan, baimena baliatzen den bosgarren urtean zehar 2 hilabetez jarraian gertatzen bada, bosgarren urtea luzatu ahal izango da, etenik gabe bajaran egon den denbora tarte berdinerako.

En ningún caso podrá excederse ese ámbito temporal de 5 años. Excepcionalmente, en el caso de enfermedad grave de la persona interesada por un período ininterrumpido de 2 meses producido a lo largo a lo largo del quinto año de disfrute del permiso, se podrá previa solicitud, alargar el quinto año por un período igual al tiempo que se haya permanecido en situación de baja ininterrumpidamente.

Hirugarrena.— Baimena baliatzeko lehenengo lau ikasturteetan, lanaldi osoagatik legozkiokeen ordainsarien ehuneko laurogeita lau jasoko du interesdunak. Horrek ez du esan nahi baimen hori beste baimen, lizentzia eta beste administrazio-egoera batzuekin bateragarria ez denik. Egoera horiek kasu bakoitzean dagozkion ordainsariak zehaztuko dituzte.

Tercero.— Durante los primeros cuatro cursos de disfrute del permiso, el/la interesado/a percibirá el ochenta y cuatro por ciento de las retribuciones que le corresponderían por la jornada completa, y ello sin perjuicio de las situaciones que pudieran darse por la compatibilidad de este permiso con otros permisos, licencias y otras situaciones administrativas, que determinarán las retribuciones que en cada caso correspondan.

Bosgarren ikasturteko ordainsariak administrazioegoeraren eta/edo aurreko lau ikasturteetan sortutako ordainsarien arabera zehaztuko dira.

Las retribuciones del quinto curso se determinarán en función de la situación administrativa y/o las retribuciones devengadas en los cuatro cursos anteriores.

Laugarrena.— Baimena baliatzen den bitartean, interesduna zerbitzu aktiboan egongo da, eta lanpostua eta behin betiko destinoa gordetzeko eskubidea izango du. Eszedentzian emandako denbora antzintasunari eta eskubide pasiboiei dagokienez zenbatuko da.

Cuarto.— Durante el disfrute del permiso el/la interesado/a permanecerá en situación de servicio activo, teniendo derecho a la reserva de plaza, y computándose el tiempo de permanencia en el mismo a efectos de antigüedad y derechos pasivos.



Bestalde, bosgarren ikasturte horretan zerbitzu aktiboan egoteagatik, gaixotasunagatiko edo istripuagatiko bajaran egonez gero, eta egoera hori mantentzen den bitartean, baja-agiriak aurkeztu beharko dituzu zure lantokian.

Por otro lado, precisamente por permanecer ese quinto curso en situación de servicio activo, en caso de incurrir en una situación de baja por enfermedad o accidente, y en tanto dicha situación se mantenga, deberá presentar en su Centro de trabajo los correspondientes partes de baja.

ERREKURTSOA

Ebazpen honen kontra gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita hilabeteko epean,

RECURSO

Contra la presente Resolución podrá interponerse Recurso de Alzada ante la Viceconsejería de Administración y Servicios del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su efectiva notificación.

Vitoria-Gasteizen, sinadura data-orduan
En Vitoria-Gasteiz, a fecha-hora de firma

UNAI NIETO MARIJUAN

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA
DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL